


2007KO JARDUERAK



0. EGOERA OROKORRA

Euskal Herriko hainbat Udal, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzaz garatu ditugun ekimen guztiak, Udalek dituzten konpetentzi arloetan burutu ditugu.

UDALBIDE Elkarlan Elkartek ekimenak burutzeko zenbait programa propio jarri ditu martxan. Batez ere, Euskal Kultura –Euskara barne-, kirola eta beste arlo batzuetan.

Ekimenak, funtsean, baina ez denak, Nafarroan eta Iparraldean burutu ditugu, izan ere, Euskal Kulturak lurralde hauetan baitu egoerarik ahulena.

2007. urtea UDALBIDE Elkarlan Elkartearen proiektuen kontsolidazio urtea izan da. Urtero bezala, euskara eta euskal kulturaren jarduten duten beste elkarte eta erakundeei lagundu ez ezik, UDALBIDEk martxan jarritako Udalekuak, Natur Eskolak, Matrikulazio kanpaina etabar proiektuek arrakasta eta oihartzun handia izan baitute.

Horretaz gain, Elkartearen web gune berria martxan jarri da. Bertan, UDALBIDE eta UDALBILTZA[®]ko material guztia, elkartearen egitasmoa (deialdia), jarduketak, Euskal Diasporari loturiko guztia, adierazpenak eta berririk berrienak daude.

1. EKIMENAK

1.1. UDALBIDEREN PROGRAMAK

1.1.1.- UDALBILTZA®: Aberri Eguna: 20.619,39 €

2007ko Aberri Eguna Foruan (Bizkaia) ospatu zen apirilaren 7an. Pazko bezpera izanik, ohi baino jende eta komunikabide gehiago gerturatu zen.

1.1.2.- Nafarroako Matrikulazio Kanpaina: 27.706,60 €

Euskara Kultur Elkargoarekin batera, hirugarren urtez jarraian, Nafarroan hezkuntzan D ereduan matrikulatzeko kanpaina burutu zen, martxoa eta apirilean.

Horretarako, komunikazio euskarri ezberdinak erabili ziren: egunkariak, infobusak, irratia, aldizkariak... " Euskaraz matrikula ezazu. ETORKIZUNERA KONEKTA EZAZU" lemapean.

Ildoak honakoak izanik:

- Kalitatezko heziketa batera
- Eleaniztasunera
- Gure kulturara
- Lan etorkizunera

1.1.3.- Jose M^a Jimeno Jurío-ren LAN GUZTIAK: 132.000 €

2005eko maiatzaren 30ean Pamiela Argitaletxearekin hitzarmen bat burutu zuen Udalbidek, Jose M^a Jimeno Jurioren *Obras completas bilduma* argitaratzeko.

62 tomoz osatutako bilduma, urtero 10-15 liburuki argitaratuz ari da gauzatzen. Idazle nafar honen bildumak balio handia dauka, Nafarroako historia, etnografia, geografia... ez ezik, bertako kultura eta hizkuntzaren inguruko ikerlanak biltzen baititu.

1.1.4.- Udalekuak: 41.405 €

2007an jarri zen lehen aldiz martxan proiektu hau, Nafarroako Urban. Uztailleko hilabetean, lau txandatan 10-13 urte bitarteko 169 hurrek hartu zuten parte. Lehendabiziko urtea izateko, oso arrakastatsua.

Helburuak:

- ❑ Euskal Herriko, lurralde ezberdinetako gazteen arteko ezagupena eta harremanen sustaketa
- ❑ Euskara bultzatzea
- ❑ Urbanen "Euskal Herriaren zilborra" dagoen Euskal Kulturaren arrastoak ezagutaraztea
- ❑ Ingurumenaren aldeko sentsibilizazioa sustatzea
- ❑ *zazpi lurraldekoekin, zazpi egunez egonez*

1.1.5.- Natur Eskolak: 15.962,87 €¹

Udalekuei jarraipena emateko asmoz, Urbanen bertan, euskal lurralde ezberdinetako eskolen arteko hartu emana. Urria, azaroa eta martxotik ekainera bitarte.

Helburuak:

- Ingurumenean oinarritutako kalitatezko programa hezigarria barneratzea, zazpi euskal lurraldeetako ikasleekin.
- Euskaraz hitz egiteko
- Ingurumenaren aldeko sentsibilizazioa indartzeko
- Natura maitatzeko
- Euskal Kultura ezagutzeko
- Lurralde ezberdinetako gazteen arteko topaketa izateko

1.1.6.- HURBILTZEN (Herrien arteko lankidetzak): 9.077,26 €

HURBILTZEN egitasmo honen helburu nagusia zera da: Euskal Herriko udalen arteko senidetze akordioak bultzatu, euskal hiritarren arteko harremanak indartu ahal izateko.

Udalen arteko senidetze akordioak duela zenbait hamarkadatik hona garatu den praktika ezagun bat dugu. Udal askok, dagoeneko esperientzia luze eta aberasgarria dute arlo honetan.

2.007ko Hurbiltzen:

- Hazparne /Azpeitia
- Nafarroa (*Garaitzeko Asi. Auritz*) / Akitania (*Lagunarte. Lekuine*)

¹ 2007an gastatuak. Aurrekontua 2007-2008 ikasturteko zen.

1.1.7.- DIASPORA: 18.633,67 €

Udalbideko Diaspora saileko zuzendaritzako kideak, Julian Eizmendi lehendakariarekin batera, urrian Argentina eta Uruguaien izan ziren, Euskal Herria eta bi herrialde hauetako euskal diasporarekiko harremanak indartzeko xedez.

Hainbat euskal etxeetan hitzaldiak eskaini zituzten, Rosarion ospatu zen Argentinako Euskal Aste Nazionalean egonik. Etorkizunera begira, elkarrekin lan egiteko oinarriak finkatu zituzten.

1.1.8.- EITB Nafarroan 112.817,94 €

Udalbideko Zuzendaritza Batzordeak 2005eko maiatzaren 17ean EITBrekin hitzarmena sinatu zuen, EITBren emisio guztiak Nafarroa osoan hartzeko xedez.

Ordutik, hainbat udal eta tokiko erakundeekin hitzarmenak sinatu dira.

1.1.9.- Aranzadi Zientzi Elkartearekin Hitzarmena: 18.000 €

2004tik, Udalbidek Aranzadirekin hitzarmenak sinatu ditu.

2007ko proiektuaren barne, honako puntuak daude:

- *1936ko gerra. Oroimena eta ahanztura Euskal Herrian*, (Gerra Zibilean fusilatutakoen deshobiraketa lanak).
- *Nafarroako Erresumaren historia eta Gazteluak* (Amaiurko gazteluko indusketa arkeologikoen segida).
- *Kultur ondarearen azterketen ikastaroak*, (Orbaitzetan dagoen ondarearen azterketa).

Udalbideren helburu nagusia, euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna indartu eta sustatzea izanik, oso garrantzitsua da Aranzadi Zientzia Elkarteak egiten duen lana, gure ondarea ikertu eta babesteak lan eta esfortzu handia eskatzen duelako.

1.1.10.- Euskara Kultur Elkargoarekin Hitzarmena: 60.000 €

2001etik Udalbide Elkarlan elkarteak, Euskara Kultur Elkargoarekin hitzarmenak sinatu ditu.

Euskara Kultur Elkargoak Nafarroan jarduten du 1998tik, euskara eta euskal kultura bultzatzen eta defendatzen. Urteko jardueren barne, mahai-inguruak, foroak, hitzaldiak; euskararen inguruko txostenak, erakusketak,

liburu eta komunikazio argitalpenak; aurrematrikulazio kanpainak... burutzen ditu. Nafarroan euskara eta euskal kulturarekiko egiten denaz - eta egiten ez denaz - informazio zehatz eta mugatua emateko tresna interaktibo eta dinamikoa den Sarea tresna daukate. Nafarroan ez ezik, nazioartean ere hemengo egoeraren berri izateko.

Hizkuntza erabileraren esparru formaletan edota eragin handiko zerbitzuetan, euskararen erabilpena sustatzea eta Nafarroako euskaldunen hizkuntza eskubideak defenditzea ditu ARTEKARIA egitasmoak.

UDALBIDE ELKARLAN ELKARTEAREN PROIEKTUAK,
Guztira: 456.222,34 €

1.2. UDALBIDEREN HITZARMENAK

a) UDALBIDE HEDABIDEAK Programa (70.500 €)

EUSKAL IRRATIAK (20.000 €)

Urteko jarduera egiteko. Euskal Irratiak GURE IRRATIAK, IRULEGI IRRATIAK eta XIBERUKO BOTZA IRRATIAK osatzen dute. Laguntza, barne komunikazioa lantzeko eta tresneria hobetzeko jaso dute.

EUSKALERRIA IRRATIA (40.000 €)

Euskalerria Irratia, irrati euskalduna da. Iruñerrian erroturiko irrati euskalduna. Euskararen erabilera funtzional eta publikoa egin eta eragiten duena, euskara komunikaziorako tresna baliotsua dela egunez egun frogatzen duena. Iruñerriko euskaldunekin batera euskararen ezagutza eta erabilpena bultzatzera konprometitu... urtetik urtera, entzule, iragarle, laguntzaile, bazkide talde mardula bereganatu du. Egun, errealitate sendoa da: hamabi kideko lantalde profesionalak gidatzen du irratia.

2007ko urteko jarduerak:

- *Aintzinabidean*: deskonexioak beste irrati euskaldunekin.
- *Xintxuketa*: lantokia eta tresnen hobekuntza.
- *Inbertsioak*: ekipamendu teknikoa.
- *Emakida*: irratia legeztatzeko, proiektu sendoaren aurkezpena.

KEBENKO KULTUR ELKARTEA (6.000 €)

EKIALDE Aldizkaria, *Pirineoetako aldizkari euskalduna*

Aldizkariaren edukiei dagokienez, euskara, eskualdeko euskalkia eta euskal kulturak dute lehentasuna. Batera, bestelako gaiak ere jorratzen dira. EKIALDE aldizkariak honako eskualdeak hartzen ditu: Agoitz, Irunberri, Zangoza, Aezkoa, Erronkari, Zaraitzu eta Zuberua.

TTIPI-TTAPA Fundazioa (4.500 €)

Euskal Artzainak Ameriketara DVD dokumentala egitea. AEBetan, harat joandako euskal artzainei elkarrizketak etab. eginez dokumental bat egitea. Gainera, DVD sorta batean bilduko diren 17 saioak, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako 6 herri telebistetan emitituko dira.

b) UDALBIDE HEZKUNTZA Programa (67.800)

AEK (Baiona) (10.000 €)

Baionako gau eskolak, helduak euskalduntzen dihardu. Egun 210 ikasle dituzte eta 13 irakasle. Euskaltegi berriko hamasei gelak eta bereziki mintza praktika gunea janzteko materialentzako laguntza eman die Udalbidek: altzariak, audio-bideo gela, liburutegiko materialak, tresna informatikoak...

AEK (Iruña) (20.000 €)

Iruñan ez ezik, Nafarroako zati handi batean oraindik euskara sendotzearen premia dago. Eremu misto eta ez euskaldunean, euskaldunen portzentajea txikia da, baina ikasi nahi dutena gero eta handiagoa. Guzti honi gainera, bertako Gobernuak euskara sustatzearen alde lan egiten duten elkarteei ematen dien laguntza eskasa ikusirik, ez daiteke asko egin. Hortaz, hutsune hori kitatzeko eta asko duten premia horri erantzuteko, AEK-k Iruñeko Donibane auzoan euskaltegiarentzako eraikina berri egin du, eta Udalbidek Irrintzi euskaltegiari egoitzak sortutako gastuei aurre egiten lagundu die.

HEZKUNTEK (9.500 €)

Iparraldeko enpresak indartzen eta euskalduntzen diharduen elkarte honek, euskara teknikariak ezartzeaz gain, euskararen jarraipen zehatza egiten du. Horretarako, beharrezkoa da lanbide heziketak ikasten dabiltzan gazteei, frantses ez ezik euskaraz ere formatzea. Gazteak Iparraldean bizitzen gelditzeko, bertako ekonomi orekatu baten aldeko apustua egin nahi da. Industria eta teknikariak garatu gabe, ekonomiak ezin duelako aurrera egin. Horregatik bada, Udalbidek laguntza eman die gazte hauek beren formazioa Hegoaldean euskaraz garatu dezaten.

LUMA HAUR ESKOLA (Ziburu) (3.000 €)

Bi LUMA Haur Eskolei (haurtzaindegi euskaldunak) eman zaie laguntza:

1. ZIBURU: Estrukturaren hobekuntza: Informatika materiala eta txirrista psikomotrizitea. (3.000 euro)

LUMA HAUR ESKOLA (Baiona) (3.300 €)

2. BAIONA: Baionako lokaleko horniduren lanerako (4.000 euro)

Garrantzi handia du, Baiona eta bere ingurunean umeei txikitatik euskaraz egitea, are gehiago, askok guraso erdaldunak dituztenean. Baita ere, euskal kulturarekin lotutako ekintzak burutzea.

MENDI BEHERA ELKARTEA (20.000 €)

Oibarko Energia Bereiztagarrien gelaren euskaratzearen 2. faseko lanak. Energia Berriztagarriaren helburuak, energiaren isurketei eta kontsumoei loturik doazen ingurumen arazoaren difusioa; aurrezpen energian eta energia berriztagarrian kontzientziatzea; eta jendearen jarrera aldatzea dira.

Horretarako Gelan, informazioa, komunikazioa, ingurumen hezkuntza eta giza eskuharmena eskaintzen dituzte.

OHAKOA ELKARTEA (2.000 €)

Miarritzeko Ohakoa hartzaindegia, 1.997an osatua, Iparraldeko euskal hartzaindegi bakarra izan da duela gutxira arte. Orain arte 15 haur hartzeko baimena zuen eta bertan, 5 langilek egiten dute lan. Udalbidek, 2005ean hartzaindegiarentzako eraikitako eraikin berri eta handiagokoaren defizita estaltzeko eman die laguntza.

c) UDALBIDE KIROLA Programa (30.000 €)

ELITE PILOTE BASQUE (10.000 €)

EPB, trinketeko eskuzko pilotako txapelketak antolatzen ditu. Helburuak: txapelketa berriak antolatzea eta beste txapelketa batzuetan parte hartzea; pilotarien formakuntza Euskal Herriko ligan eta Nafarroa eta Euskadiko federazioekin lan egitea; atzerrian, txapelketetan parte hartzea eta modalitate hau ezagutaraztea; Eta eliteko kirolariak sortzea.

Udalbidek urte honetan, trinketeko eskuzko pilota atzerrian promozionatzeko laguntza eman die. Besteak beste, Pabe, Paris eta Mexikon.

EUSKAL FUTBOL CAMPUS (3.000 €)

Euskaraz burutu eta futboleant oinarritzen diren 8 eta 12 urte bitarteko neska mutikoentzat astebeteko hiru kanpaldi egiteko. Euskal Futbol Campus kanpaldi hauen bitartez gazte hauen artean euskararen erabilpena bultzatu nahi da, bidenabar futbolerako beharrezkoak diren konpetentziak garatuz, hastapeneko futboletik abiatuz eta lehiaketa alde batera utziz.

EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNA (3.000 €)

Amurrion ospatu zen IV.Euskal Kirolaren Eguna burutzeko eman zaio laguntza. Euskal kirol ezberdinen ezagupena eta hastapena sustatzeko helburupean egiten da Euskal Kirolaren Eguna, hala nola, Euskal Kirolaren ordezkapena Euskal Federazio ezberdinei eta Euskal Kirol Federazioen Batasunari aitortzea.

Euskal Kirolaren Eguneko beste asmo handietako bat, Euskal Selekzioen nazioarteko ordezkaritza ofiziala aldarrikatzea da.

OREKI FUNDAZIOA (14.000 €)

Kirol-Etik egitasmoa bizimodu osasuntsua eta aktiboa bultzatzeko, dopajeari aurre hartzeko eta kirolaren balioak sustatzeko programa bat da. Portaera etiko egokiak erakutsiz kirol errendimendu handia lortzea. Hiru urratsetan gauzatuz:

1. Kirolarien eta entrenatzaileen prestakuntza teorikoa eta teknikoa.
2. Kirol jardunbide egokiak bultzatzea. (*Kode etikoaren baitan, Jardunbide Egokien Aitorpena eta Konpromiso Etikoaren Aitorpenaren sinapena*).
3. Aholkularitza eta ikuskapena. Kirolarien kirol fisiologikoan eta kirol medikuntzan heziketa; prestakuntza fisikoa, teknikoa eta etikoa. Medikuntza kontrol zehatzak Tolosako Asunción Kliniketan eta Donostiako Virgen del Pilar kliniketan.

Metodologia hauek jarraituz, behar den maila lortzen duten kirolariei, akreditazio bat emanen zaie: ***K-label (kirol label) Ziurtagiria*** kirol eta gizarte mailan beraien promozioa sustatzeko.

Helburua, kirol medikuntza, prestakuntza fisikoa, kirol etika eta kultur heziketaren arloetan behar den laguntza profesionala ematea da. Herri Kirolek Euskal Herrian duten tradizio etikoa sustatzeko. Herri Kirolen irudi aberatsago baten lorpena, non entrenamendu metodo berri eta zientifikoak alderdi antropologiko eta kulturalarekin elkartuko diren. Azken batean, kirol errendimenduan, osasunaren zaintza eta portaera etikoaren kontzientzia.

**d) UDALBIDE EKONOMIA ETA LAN MUNDUA Programa
(63.000 €)**

LABORANTZA GANBARA (50.000 €)

Egun, Iparraldean, herritarren erdia nekazaritzari loturiko lanetan aritzen da. Hain zuzen, nekazal mundua da han euskara eta euskal kulturaren praktika eta biziraupenaren oinarri. Gauzak horrela, EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARAren bitartez, nekazaritza herritarra eta jasangarria garatu nahi da, testuingurua bizirautearren. Iparraldeko kalitatezko produktuen promozioa eta garapena, Hegoaldera begira bereziki.

Hau finkatuz gero, nekazaritza eta nekazarien etorkizuna bermatzen da, bidenabar, kalitatea ardatz, euskal nekazari mundua bermatuz.

Laguntza eman zaio, mintegi, azoka (Lurrama), argitarapenak... antolatzeko.

MAPSA Cooperativa (10.000 €)

MAPSA S. Coop. , MCC talde barruko kooperatiba da eta Orkoienen dago. Gorpilentzat aluminiozko egiturak eta piezak egiten dituen enpresa honek, egun, 360 langile inguru ditu.

Aspaldidanik zegoen nahia, enpresan euskara plana egiteko. 2006an jarri zuten martxan euskara normalizatzeo plana: langileei aholkuak eman, euskara irakatsi, ikastaroak antolatu eta jarraipena egin motibazioa sortuz; Errotulazioa, dokumentazioa, terminologia, programak, intraneta eta berripaperak euskaratu... Azken finean, helburua euskaraz idaztea eta hitz egitea da, eguneroko lan dinamikaren barruan, normaltasun osoz.

TAFALLAKO UDALA (3.000 €)

Euskara merkataritzan sustatzea. Tafallako Udaleko Euskara Zerbitzuak, ekintza honen bitartez, hirian euskararen normalizazioa sustatzea du ardatz. Horretarako, zerbitzuei aholkuak, ikastaroak eta errotulazioa euskaratzeko laguntzak eman diete.

e) UDALBIDE KULTURA Programa (196.603 €)

AINTZINA ESKIULA ALKARTEA (5.000 €)

Zuberoko elkarte honek, aspaldidanik sorkuntza artistikoa garatzen du Iparraldean. Udalbidek 2007ko dantza eta kantu emanaldiak burutzeko eman dio laguntza.

ALTSASUKO KIMA TALDEA (2.000 €)

Sakanan euskaldunen sarea antolatu du, web orri parte hartzaile eta indartsu baten bidez. Elkarren arteko hainbat ekintza kultural antolatuz.

ARANTZAKO UDALA (6.000 €)

Nafarroa iparraldeko herri honetan haur txikientzako aisialdirako eskaintza falta egonik, herriko ludoteka bat egin dute Udalbideren laguntzarekin.

ARTZAIN MUNDUA (2.000 €)

Artzain Mundua elkarteak, Ameriketara egon ziren eta dauden euskal artzainen topaketak antolatu ditu aurten ere. Topaketak iraila eta urrian egin ziren, Aldude (Behe Nafarroa) eta Gernikan (Bizkaia). 2007ko Artzainen Topaketa honetan, jende mordo gerturatu zen eta anaiarteko festa giroan murgildu ziren topaketak. Udalbidek, euskal artzainei omenaldia egiteko bi herri hauetan eraiki ziren monumentuak egiteko eman zien laguntza.

ASOC. AMIGOS OLENTZERO (IRUÑA) (6.000 €)

Olentzeroren Lagunak Elkarteak 2007eko Iruñeko Olentzeroaren desfilea burutu ahal izateko eta *Olentzero Iruña* izeneko aldizkariaren argitalpenerako laguntza jaso du Udalbidetik.

ASOCIACIÓN ARINALDE (AMESKOAK) (2.000 €)

Arinalde Elkarte, Bakedanoko (Nafarroa) elkarteak, Ameskoako bailaran umeak eskolatik atera eta euskaraz jarrai dezaten, ludoteka euskaraz proiektua martxan jarri du.

ATRILIA (7.500 €)

Musikara dedikatzen den Iruñako elkarte honek, *Musika udalekoa* martxan jarri du 2007an. Udalekuko egonaldi batzuk euskaraz izan direla kontuan harturik, Udalbideren laguntza jaso du.

BERTSULARIEN LAGUNAK (Iparraldea) (5.900 €)

Bertsularien Lagunak Elkarteren jarduna, Iparraldean bertsolaritza sustatzea eta bertsolariak eta bertsozaleak sortzea da; bertso eskolak, saio, sariketen antolaketa eta ikerkuntza bidez.

Azken finean, bertsolaritza euskara normalizatzeko tresna bat baita.

BERTZ-XILOA (2.800 €)

Zuberoko elkarte honek, urtero antolatzen ditu pastoralak. Pastoralak, euskal Herriko eta bereziki Iparraldeko euskal kulturaren oinarritzko atal dira.

DINDAIA FUNDAZIOA (20.000 €)

Iruñako elkarte honek, haurren garapen eta aisialdian hezkuntza eta hizkuntzaren alorrean jarduten du. Ume, gazte eta etorkinei euskararen garrantzia azaleraziz hainbat ekintzen bitartez, beste hizkuntzekin alderatuta, euskararekiko oreka sortuz. Horretarako beharrezkoak diren baliabide eta eskaintza egokiak eginez eta erakundeei proposamenaz eginez.

Urte honetarako, Udalbidek azpiegituren (udalekuak, haur eskolak, eskolaz kanpoko ekintzak...) horniketarako eta kultura diferentetako ipuin sorten argitalpena eta honen difusioa gauzatzeko emanen die laguntza.

ELIRALE DANTZA TALDEA (D. Lohitzune) (4.000 €)

Haurrentzako kultur ekitaldiak euskaraz eta liburu baten argitalpena. Bereziki, haur txikientzako dantza ikastaroak. Elirale dantza taldeak, bere dantza emanaldi eta koreografi berritzaile eta originalei esker, ospe handia lortu du Iparraldean eta Akitania osoan.

EUSKALDUNON BILTOKI (Txantrea) (8.000 €)

Iruñako Txantrea auzoan euskarazko kultur eskaintza gauzatzeko eta 2007rako kultur programazioa (ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak, zinema, bertso saioak, udako barnetegia...) aurrera eramateko. Baita ere, berriki egoitzan izandako sute eta lapurreten kalte ordainei aurre egiteko.

GAREAN EUSKARA ELKARTEA (Lizarra) (2.600 €)

Lizarrako kultur elkarte honen urteko jarduerak laguntzeko: Haurrentzat aisiako ekitaldiak euskaraz; Lizarrako Euskararen Egunaren antolaketa; Lizarraldean kantuz ibiltzeko ekitaldiak; Haurrentzako ipuin kontaketa; Elkartearen gizarteratzeko kanpaina; Elkartearen aldizkaria ateratzea.

HAIZE BERRI ELKARTEA (3.000 €)

Izurako (Behe Nafarroa, Oztibarre kantonamendua) Haize Berri Kultur Etxeak, Udalbideren laguntzaz, Euskarazko ekintzak (Literatura, film labur eta antzerki emanaldiak) burutu izan ditu 2007ean zehar.

Elkartearen helburu nagusia: euskara, euskal artea eta kultura ezagutarazteaz eta garatzeaz gain; eskualdean, elkarteen eta bizi sozialaren adierazpen gunea izatea da.

HEBENTIK ALKARTEA (Maule) (9.000 €)

Mauleko elkarte honi, urteko jarduera hauek burutzeko eman zaio laguntza:

- Etxebarre 07 sorkuntza kultur ekitaldiak: hitzaldiak, erakusketak, antzerkia...
- HEBENTIK arte ibiltaria

HERRI SOINULARIAK (10.000 €)

Iparraldeko lau festibal artistiko, EREIN deitua, antolatzeke eta emanaldiak eskaintzeko Euskal Herrian eta kanpoan:

- Xiru Festibala (Gotainen, Xiberua)
- Hartzaro Festibala (Uztaritzen, Lapurdi)
- Errobiko Festibala (Itsasun, Lapurdi)
- Gaita Eguna (Iparraldeko hiru eskualdetan)

Ezein medioetako sorkuntza artistikoaren bitartez, Euskal Herriko sorkuntza artistikoak zabaldu nahi da. Eta euskal artista gazteak bertan zein kanpoan, promozionatu.

HIRUKI ELKARTEA (6.000 €)

Elkarte honen baitan, Baionako euskalgintzako hiru elkarte biltzen dira: Gau Eskola, bi ikastola eta Gure Irratia. Hiruen indar eta abileziarekin, Lapurdiko hiriburuan euskal kultura gizarterarazten dute.

Udalbidek laguntza eman die 2007ko kultur jarduerak burutzeko. Besteak beste: Sagarno eguna, Olentzero Baionan, Baionan kantuz eta Ikusgarriak (eguberriko kantaldia, antzerki emanaldia eta bertso saioa).

IPARRALDEKO DANTZARIEN BILTZARRA (Luhuso) (3.000 €)

Iparraldean, euskal dantzen formakuntza ikastaroak burutzeko. Euskal dantzetan, irakasleen titulua ateratzeko ikastaroak gauzatzeko.

IRUJO ETXEA (5.800 €)

Lizarrako elkarte honen urteko jarduerak (hitzaldiak, ikastaroak, kultur ekitaldiak, sariketak...) burutzeko. Elkarte honen helburu nagusia, euskal kultura eta historia berreskuratzeke asmoz eta On Manuel Irujoren pausoei jarraipena emanez, herriko nortasun ezaugarriak jorratzea da, Memoria Historikoan oinarrituz.

ERRONKARI eta ZARAITZU BAILARAKO BATZAR NAGUSIA (10.000 €)

Erronkari eta Zaraitzuko Iboxetan premiazkoa da euskara teknikari berri bat kontratatzea, baina bi ibarretako Batzorde Nagusia jasaten ari diren krisi ekonomikoa eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza murrizketak direla medio, zail egiten zaie euskara zerbitzuak burutzeko behar den teknikaria finantzatzeko bidea topatzea. Beraz, Udalbidek Ibarreko euskara zerbitzuak egituratzeko eman die laguntza.

KANTIRUKI ELKARTEA (3.000 €)

Kantiruki Baigorriko kantari taldea eta Kaliforniako *Noka* kantari taldearen hartu emana burutzeko eta Euskal Herritik zehar kontzertuak eskaintzeko. Honek, Euskal herritarren eta euskal diasporakoen harremana indartzea dakar.

KARRIKIRI ELKARTEA (6.000 €)

Iruñeko Karrikiri Kultur Elkartearen helburu nagusia, Iruñeko euskal komunitatea tinkotzea eta kaleetan euskararen erabilera areagotzea da.

Laguntza eman zaie ondorengo jarduerak gauzatzeko:

- *Karri-bus*: lurraldeen arteko harremanak sustatzeko
- *Lan-poltsa*: langile euskaldunentzako lan-eskaintza
- *Pisukide zerbitzua*: euskaldunentzako pisua topatzeko zerbitzua
- *Zerbitzu errolda*: denda euskaldunen zerrenda eta publizitatea

LANDER SANTAMARÍA (2.000 €)

Kazetari eta idazle nafarraren, *Las cuatro estaciones en el Valle de Baztan* liburua argitaratzeko. Liburu hauek, Diario de Noticias egunkariarekin banatu ziren eskualdean. Halaber, Euskal Herriko liburu denda eta Durangoko Euskal Disko eta Liburu azokan egon zen salgai.

TAFALLAKO UDALA (2.000 €)

Tafallako Udaleko Euskara Zerbitzuak bultzatuta, herri liburutegia euskarazko materialez hornitzea eta euskarazko eskaintza plazaratzea, hainbat kultur jardueren bitartez.

TUTERAKO NAFARREN ETXEA ELKARTEA (3.000 €)

Tuterako Nafarren Etxea Elkartea, eskualde osoan kultur dinamizatzailea da. Nagusiki, Nafarroaren historia, soziologia, ekonomia, politika eta kulturaren inguruko ekimen kulturalak antolatzea du xede, betiere Euskal Herria testuingurutzat harturik. Udalbidek laguntza eman die, Konstituzioa eta Nafarroako Foruen gaineko bi konferentzia esanguratsu antolatzeko.

f) UDALBIDE DIASPORA Programa (17.700 €)

BARTZELONAKO EUSKAL ETXEA (2.700 €)

Bartzelonako Euskal Etxeak, urtero, euskal kulturako programazio aberatsa burutzen du Kataluniako hiriburuan. Udalbidek honako hiru ekintzetarako eman die laguntza:

- *Zinemaldia* (euskarazko filmen emanaldia)
- *Euskal herri sona!* (Euskal taldeen eta abeslarien kontzertuak)
- *Literaturaldia* (euskal literaturaren ezagupena, barreiapena eta idazleen hitzaldiak)

BASQUE HERITAGE (15.000 €)

Udalbide eta Basque Heritagek Euskal Diasporako ekimenean aurrera jarraitzeko asmoz, hitzarmen sinaketa burutu zuten. Hitzarmenaren medioz, 15.000 euroko laguntza emanen dio Udalbidek Basque Heritageri. Basque Heritageren web orria: www.basqueheritage.com eta bere barruan dagoen gaztelerazko www.euskalkultura.com euskal diasporako informazioko web orririk garrantzitsuenetarikoa eta gehien bisitatuenetarikoa da.

¹ 2007ko onartuak/eskaerak.

¹ 2006ko onartuak/eskaerak.

2007. URTEAN EMANDAKO LAGUNTZAK: 845.155,76 €

ATALKA

Komunikabideak	183.317,94 €
Hezkuntza	95.506,6 €
Kirola	30.000 €
Ekonomia eta lan Mundua	63.000 €
Kultura	407.301 €
Hurbiltzen	9.077,26 €
Udalbiltza[®]	20.619,39 €
Diaspora	36.334 €

LURRALDEKA

Euskal Herri osoa	259.397,55 €
Iparraldea	159.500 €
Nafarroa	389.924,54 €
Diaspora	36.333,67 €

NAFARROA	389.925 €
Hezkuntza / Educación / Education / Education	
✓ AEK (Iruña)	20.000
✓ MENDI BEHERA Elk.	20.000
✓ Matrikulazio KANPAINA	27.707
Komunikabideak/ Medios de comunicación / Mediás / The media	
✓ EUSKALERRIA Irratia	40.000
✓ EITB Nafarroan	112.818
✓ EKIALDE Aldizkaria	6.000
✓ TTIPI-TTAPA	4.500
Kultura / Cultura / Cultura / Culture	
✓ Euskara Kultur Elkargoa (EKE)	60.000
✓ IRUJO ETXEA Elkarte	5.800
✓ ERRIBERA EGUNA	1.500
✓ OLENTZEROREN Lagunak Elk.	6.000
✓ KIMA Taldea (Altsasu)	2.000
✓ Tuterako NAFARREN ETXEA	3.000
✓ ERRONKARI eta ZARAITZU Bailarako Batzar Nagusia	10.000
✓ KARRIKIRI Elkarte	6.000
✓ MENDI BEHERA Elk.	20.000
✓ TAFALLAko Udala	2.000

✓ ARANTZAKo Udala	6.000
✓ ARINALDE Elkartea	2.000
✓ ATRILIA Elkartea	7.500
✓ DINDAIA FUNDAZIOA	20.000
✓ EUSKALDUNON BILTOKI	8.000
✓ GAREAN Euskara Elkartea (Lizarra)	2.600
✓ <i>Las 4 estaciones en el Valle de Baztan liburua</i>	2.000
Ekonomia /Economía y mundo laboral / Économie et monde du travail / The economy and work	
✓ TAFALLAKo Udala	3.000
✓ MAPSA Kooperatiba	10.000
Kirola / Deporte / Sport / Sports	
✓ Euskal Futbol Campus	3.000

IPARRALDE	159.500 €
Hezkuntza / Educación / Education / Education	
✓ LUMA HAUR ESKOLA (Ziburu)	3.000
✓ LUMA HAUR ESKOLA (Baiona)	3.300
✓ Baionako AEK	10.000
✓ HEZKUNTEK	9.500
✓ OHAKOA EIk.	20.000
Komunikabideak / Medios de comunicación / Mediás / The media	
✓ EUSKAL Irratiak	20.000
Kultura / Cultura / Cultura / Culture	
✓ AINTZINA ESKIULA Elkartea	5.000
✓ BERTSULARIEN LAGUNAK EIk.	5.900
✓ HERRI SOINULARIAK	10.000
✓ HEBENTIK EIk.	9.000
✓ HIRUKI EIk.	6.000
✓ BERTZ-XILOA	2.800
✓ ELIRALE Dantza Taldea	4.000
✓ HAIZE BERRI EIk.	3.000
✓ Iparraldeko Dantzarien Biltzarra	3.000
✓ KANTIRUKI EIk.	3.000

<p>Ekonomia /Economía y mundo laboral / Économie et monde du travail / The economy and work</p> <p>✓ LABORANTZA GANBARA</p>	50.000
<p>Kirola / Deporte / Sport / Sports</p> <p>✓ Elite Pilote Basque</p>	10.000

DIASPORA	36.334 €
<p>Komunikabideak / Medios de comunicación / Mediás / The media</p> <p>✓ BASQUE HERITAGE</p>	15.000
<p>Kultura / Cultura / Cultura / Culture</p> <p>✓ Bartzelonako EUSKAL ETXEA</p>	2.700
ARGENTINA / URUGUAI	18.633,67

EUSKAL HERRI Osoa	229.701 €
Kirola / Deporte / Sport / Sports	
✓ Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB)	3.000
✓ OREKI FUNDAZIOA	14.000
Kultura / Cultura / Cultura / Culture	
✓ JIMENO JURIO Obras Completas	132.000
✓ UDALEKUAK (Urbasan Bagara)	41.405
✓ ARANZADI Zientzia Elkartea	18.000
✓ NATUR ESKOLAK (Urbasan Bagara)	15.962,87*
✓ ARTZAIN MUNDUA	2.000

HURBILTZEN	9.077 €
-------------------	----------------

UDALBILTZA®	20.619 €
--------------------	-----------------